



*Etxera bidean*  
*Xamar*

ISBN: 978-84-9172-063-8  
Saio eta Testigantza, 209  
2018. urtea / 15 x 21 cm / 192 or.

**16,00€**

—Pero... ¿por qué hablas así, mi chico?

Gure amatxi Bitorianaren bapateko deserotasuna nabaria zen, amatxi eta biok paseatzera atera ginelarik...

Garralda (Aezkoa ibarra, Nafarroa), 1980. urtean, amatxi euskaldun baten harridurak eta deserotasunak ez zuten mugarik, ordu artio erdalduna zen iloba lehenbizikoz Euskaraz mintzatu zitzaizolarik.

Horrela hasten da Frankismoan sortu, hazi eta hezitako belaunaldi baten istorioa, jatorriz zegozkion hizkuntzaren eta kulturaren gabezia ohartuta, haien berreskurapenean murgildu zelarik.

Memoria historikoa ez da gerra kontuetara bakarrik mugatu behar, Xamarren iritziz, ondorioak hura bizi izan ez zutenengana ere hedatu zirelako urtetan. Mintzaira ikasten, historia ezagutzen, herri kultura baloratzen... galdutakoaren bila, 70eko hamarkadan, aetz gazte multzo bat abiatu zeneko sentimenduak nahas-mahas ageri dira narrazioan: ez izatearen minetik aurkikuntzaren bozkariora, ezjakintasunaren ahalketik errudunen kontrako suminera, behartutako etena gauzatu zuen belaunaldiarekiko haserretik, haren aldeko miresmen mingotsera, ezagutu eta pairatu zuenagatik...

Bidenabar, Xamarren kontakizun autobiografiko honetan, topikoak hausten dituen Aezkoa ibar liberal eta antiklerikala ezagutuko dugu, Orbaizetako arma-olaren historian gara murgilduko, bertan finkatutako estatu-mugaz gaineko harremanetan barneratuko eta, tamalez, abantxu betikoz galdurik den bertako Euskara dugu dastatuko.

Funtsean, bortuetako Euskal Herri ezezagun horretan barna bidaia argigarri bat egiteko gonbidapena.

. . . . .

**XAMAR** (*Xamarrenekoa, Garralda*)

*Etxea. Ondarea, Historia, Mintzoa* (Pamiela-Erroa, 2016)

Egilearen beste lan batzuk:

*Orhipean: Gure herria ezagutzen* (Pamiela, 1992 - 2005),  
*Orhipean. el País del Euskara* (Pamiela, 1996),  
*1898, Garralda* (Pablo Mandazen Fundazioa, 1998),  
*Orekan: Herri eta Hizkuntzen ekologiaz* (Pamiela, 2001),  
*Orhipean. Le Pays de la langue Basque* (Pamiela, 2006),  
*Orhipean. The Country of Basque* (Pamiela, 2006),  
*Euskara Jendea: Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza* (Pamiela, 2006),  
*Orhipean. El país de la lengua vasca* (Pamiela, 2012),



www.pamiela.com • 948 326 535 • soltxate@pamiela.com